

Bertso gozatzeko prest

14-19



2015^{eko} ABENDUAN HASIKO DIRA OBRAK



1.
SOLAIRUA

1 A: SALDUTA 105m²

1 A: 230.000 €* 108m²

1 B: 210.000 €* 86m²

1 C: 215.000 €* 92m²

2.
SOLAIRUA

2 A: SALDUTA 96m²

2 A: SALDUTA 105m²

2 B: 230.000 €* 96m²

2 B: SALDUTA 86m²

2 C: 185.000 €* 82m²

2 C: ERRESERBATUTA 92m²

3.
SOLAIRUA

3 A: SALDUTA 96m²

3 A: SALDUTA 108m²

3 B: 235.000 €* 82m²

3 B: 220.000 €* 86m²

3 C: 190.000 €* 82m²

3 C: SALDUTA 92m²

4.
SOLAIRUA

4 A: SALDUTA 96m²

4 A: SALDUTA 108m²

4 B: SALDUTA 96m²

4 B: SALDUTA 86m²

4 C: 195.000 €* 82m²

4 C: SALDUTA 92m²

TEILATUPEA A: 210.000 €* 93m²

TEILATUPEA A: SALDUTA 92m²

TEILATUPEA B: SALDUTA 84m²

TEILATUPEA B: SALDUTA 106m²

TEILATUPEA C: SALDUTA 84m²

TEILATUPEA C: SALDUTA 73m²

Finantzaketa



CAJA RURAL DE NAVARRAK finantzatua
Bermatutako kontuei

Urdangarin eta Vatikanoa

Iñaki etxera! Urdangarin eta Cristina Borboikoaren *ustezkeriak* argitara atera zirenetik asko jarri dira haien lekuan, Iñakirenean bereziki. Ez dakit Zumarragan jaioa izateagatik edo, baina Tolosan pertsonaia ez da oharkabea pasatu. Euskal Herrira itzul dadin ere eskatu izan dute.

Aproposak dira karnabalak horretarako. Aste honetan erabateko gaurkotasuna hartu du berriro gaiak, bikotearen eta beste zenbait kideren kontrako epaiketa hastearekin. Azken urteetan karnabaletan ikusitako *Iñaki*-ez gogoratu naiz orduan, eta bide batez, ohartu naiz uste baino denbora gutxiago geratzen zaigula moztorra prestatzeko. Errepaso bat iazkoei: Pantoja, koleta luzeko politikariak, Rajoy...Hauteskunde egunetan bozkalekuekin bezala, mojek ere ez dute hutsik egiten inauterietan. Aurtan, momentuz, ez dute Vatikanotik berririk ekarriko.

Uztailean ATARIA-n irakurri nuen albiste baten gaineko albistea espero izan dut hilabete hauetan, baina dirudienek, aurtan behintzat ez da aldatarik izango: ohiko hilabeteen bueltan izango ditugu inauteriak. Zera proposatu zuen Frantzisko aita santuak ekaina erdialdera: Aste Santua data finko batean jartzea; hau da, urtero, egun jakinetan izatea. Ondorioz, karnabalak ere urtero egun beretan egitea ekarriko luke horrek. Adi Frantziskoren esanari, inauterietan



Maite Alustiza
Berria-ko kazetaria

galtza motzetan ateratzeko «arriskua» egon daiteke eta: «Orain arte bezala jarraituz gero, urtero egun batzuk aurrrerago joango da, eta 60 urte barru Pazkoa abuztuan ospatzeko arriskua dago».

Udako festak izatera pasatuko lirateke orduan. Deitura ez litzateke hain arraroa izan-

go; duela hainbat urte, *Udaberriko festak* ize-nez moztortu zituzten karnabalak. Frankismo garaia zen, eta modu horretara, Tolosak inauteriei eutsi ahal izan zien. 36ko gerra betean ere, debekuei izkin egin zien Tolosak. Juan Mokoroa alkate zela, deklaratzera deitu zuen gobernadore zibilak, desobedientzia zela eta. Hala arrazoi-tu zion Mokoroak festa egin izana: «Armada nazional loriatsuak Malaga hartu duela ospatzen ari gara!» [Mikel Gotzon Telleria Tapiaren *Tolosako Iñauteriak* lanean irakurria].

Bestelako kontu bitxi asko ere badaude inauterien historian. Tartean, konfetiaren erabilera arautzeko bando bat, 1901. urtekoa: «Ezin dira konfetiak igandea baino lehen bota, kolore bakarrek izan behar dute, eta ezin dira lurretik jaso ondoren berriro bota».

Aurtengoak badatoz. Esku bakarrak ezin du txalorik jo; beraz, laguntza beharko dugu presaketan. *Galtzaundi*-ren abestiak dioen bezala, *Aitaren ta Semearen, Espiritu Santuaren, Jaun zerukoak lagun zaidala lan honetan neri arren.*

Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.M **Lege Gordailua:** SS-1323-2013 **Koordinatzailea:** Eneritz Maiz

Kudeatzailea: Jexux Murua **Telefonoa:** 943 655 695 **Posta elektronikoa:** ataria@ataria.info

Webgunea: www.ataria.info **Iratia:** 943 69 80 38 • 687 41 00 33 • FM 107.6 FM 105.0 **Publizitatea:** 661 678818 • publi@ataria.info

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txolortze

Tolosaldeko gizarte eragileak

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

• **Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia

tolosaldeko **ataria**



Azaleko irudia:
DW

Egeoko uretan bizitzak salbatzeko, Leidor aterpe



Lesbos uhartera iristen saiatzen diren errefuxiatuei laguntza eskaini nahi die 'Salvamento Marítimo Humanitario'k. ATARIA

'Salba ditzagun bizitzak' emanaldia antolatu dute biharko, eskualdeko hainbat eragilarekin

ITZEA URKIZU

Euskal Herriko kostaldean urteak zeramatzaten, boluntario gisa, sorosle eta patroil lanetan. Nazioarteko albisteen jarioak, ordea, Grezia aldera bideratu zien begirada, eta

Salvamento Marítimo Humanitario Gobernu Kanpoko Erakundea sortzea erabaki zuten, Zarautzen, bizitzak salbatzeko asmoz.

Egeo itsasoa zeharkatzen ari diren errefuxiatuak dira beren jomuga, eta Greziako Lesbos irlara iristea, berriz, presazko eginbeharra. Horretarako, ordea, tresneria eta baliabide jakin batzuk behar dituzte, eta erakundea bilketa lanetan ari da, laguntza ekonomikoaren bidez.

Itsasoko tragediei lehorretik ere lagun dakieke, eta horretara dator, hain zuzen, Tolosako Leidor aretoan biharko egin duten hitzordua.

Salba ditzagun bizitzak izenburupean, eskualdeko nahiz kanpoko kultur eragileek bat egingo dute oholtzan, eta ikuskizun solidarioa eskainiko diete bertaratuei.

17:00etan hasita, Odei Esnaola eta Julen Telleria ariko dira aurkezle lanetan, Iker Laurobak, Udaberri dantza taldeak, Amets Arzallusek,



Zure iragarkia jartzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.info



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

'Salba ditzagun bizitzak'

Urtarrilak 16, larunbata

17:00etan Tolosako Leidor aretoan.

Sarrera 10 euroren Truke, Leidorren, Richard argazki dendan eta Orbela tabernan.

Parte hartzaileak: Odei Esnaola, Julen Telleria, Iker Lauroba, Udaberri dantza taldea, Amets Arzallus, Oihana Iguaran, Jexuxmari Irazu, Alurr dantza taldea, Xabier Saldias eta Egan, eta Oinkari dantza taldea.

Oihana Iguaranek, Jexuxmari Irazuk, Alurr dantza taldeak, Xabier Saldiasak eta Oinkari dantza taldeak eskainiko dutenari bide ematen.

Lanik garrantzitsuenak, ordea, herritarrek egin beharko dute, Gobernu Kanpoko Erakundea diruz laguntzeko sarrera erosiz. 10 euroren truke, Leidor aretoko leihatilan, Richard argazki dendan eta Orbela tabernan eskuratu ahal izango dira.

Aipatzekoa da, gainera, bihar goizeko azokan ere postutxoak jarriko dutela, kalean, *Salvamento Marítimo Humanitario* taldearen inguruko informazioa eskainiz.

Horrela, beraz, postuan bertan nahiz emanaldiaren ondoren erakundean parte hartu nahi dutenek ere aukera izango dute horretarako, arduradunekin harremanetan jarritz.

Salvamento Marítimo Humanitario erakundearen inguruko informazio osoa eskura daiteke <http://salvamentomaritimohumanitario.org> atarian eta, gune berean, gainera, erakundea diruz laguntzeko kontu korrante zenbaki bat ere bada: Eus-kadiko Kutxa (IBAN): ES92 3035 0235 22 2350038982.

Kontakturako, berriz, 666 345 427 telefono zenbakia nahiz smhu-manitario@gmail.com helbide elektronikoa erabil daitezke.

Papergintzan greba mugagabea egiteko aukera zalantzan dago

CCOO eta UGT sindikatuek jarrera aldatu dute, greba ez egiteko deia eginez

IMANOL GARCIA LANDA

Gipuzkoako papergintzan greba mugagabea egiteko aukera zalantzan dago, CCOO eta UGT sindikatuek deialdian atzera egin eta gero. Sektoreko hiru enpresetan –Amezketako Aralar, Elduako Munksjö eta Aizarnazabalgo Zubialde– grebaren alde bozkatu zuen gehiengoak, baina Hernaniko Zikuñaga paper fabrikan egindako bozketetan grebaren kontrakoek irabazi dute, zehazki 118 boto kontra eta 50 boto alde lortuz. Lau enpresak kontuan hartuta, grebaren aldeko botoak 210 dira eta kontrakoak 182, hau da, 28 botoko diferentzia.

Andoaingo Itasa enpresaren emaitzak falta dira jakiteko, baina atzo arratsaldean, TOLOSALDEKO ATARIA-ren edizioa ixterako oraindik ez

ziren ezagutzen. Enpresa horretan gehiengo CCOO sindikatuak du, eta, beraz, ziurrenik grebaren kontrako jarrerak irabaz dezake, eta posible da sektoreko emaitza orokorra iraultzea, eta ezezkoak irabaztea.

Astelehen arratsaldean sektoreko lau sindikatuek, ELA, LAB, CCOO eta UGTk, bilera izan zuten Adegirekin. Papergintzako hitzarmenaren inguruan azken eskaintza egin zuen patronalak. Hasiera batean lau sindikatuak ados zeuden eskaintza ez onartzeko, akordioa lortzeko ezinbestekotzat jotzen zutelako hitzarmenaren blindajea, eta horri ez zion erreferentziarik egiten Adegiren eskaintzak. Asteazkenean, baina, CCOO eta UGT sindikatuek bere iritzia aldatu zuten eta grebaren kontra bozkatzea eskatu langileei.

Orain ikusi egin beharko da azken egunotan izandako jarrera alaketak zer-nolako eragina izango duen papergintzako hitzarmenaren negoziazioan.



Abenduan protestak egin zituzten papergintzako sektoreko langileek. I. URKIZU

Maialen Mujika • Nutizionista eta kinesologian aditua

«Umeak mugitua izan behar du»

Maialen Mujikak mugimendua eta haurren garapena lotzen ditu

MAIER UGARTEMENDIA IBARRA

Ibarrako Uzturpe ikastolak XVI. kultur astea ospatuko du urtarilaren 18tik 24ra, eta astelehenean kinesologian aditua den Maialen Mujikak *Mugimenduaren garrantzia haurren garapenean* hitzaldia eskainiko du, 17:30ean, Ibarrako kultur etxean.

Nola eragiten du mugimenduak haurren garapenean eta ikaskuntza prozesuan?

Gaur egun aparatologia asko erabiltzen dugu haurrentzat. Aparatu horiek momentu jakin batean gurasoei laguntza eman diezaiekete, baina era berean ikusten da umearen garapenean konexio neurologikoak egiteko garaian behar duen mugimendu hori mugatu egiten duela. Ume bat bere kasa uzten badugu mugimendu eta askatasun bat dauka. Garapen hori lurrean izango du eta horretarako ordu asko egon behar du haurrak lurrean.

Haurrak ondo, mugitzen direnean daudela esaten da, eta horrela da orduan?

Bai, haurra mugitzen ez denean estimulazio falta izan dezake edo agian, bere gorputzaren pisuagatik edo oso handia delako, estimulazio pasibo bat egin beharko genioke. Baina, ez da pentsatu behar umea lasaia dela eta horretan utzi. Umeak mugitua izan behar du eta umea mugitua bada 5-6 urterekin ikasiko du egon behar duen lekuan egoten. Gaur egun hori da gertatzen dena. Txikitan ez da nahikoa mugitzen



Maialen Mujikak kinesologia teknikak erabiltzen ditu terapietarako. M. UGARTEMENDIA

edo ez diogu uzten eta 6-7 urterekin hiperaktibitate arazoak dauzkala esaten dugu. Nire irakaslea den medikuak esaten du hiperaktiboak bere ustez ez direla existitzen, bai zik eta oraindik habilitade batzuk garatu gabe dauzkaten umeak direla.

Beharrezko garrantzia ematen al zaio gaiari?

Nik mugimendu erritmikoen terapia ikastaroa egin nuenean umeen inguruko gauza asko ulertu nituen. Nik uste pediatrek edo gurasoek ikasi beharreko nozioak izan beharko luketela. Zeren batzuetan umeak gu izorratzeko egiten dituen gauzak direla uste dugu. Esaterako, gauzak lurrera botatzen hasten direnean, umea bere eskua garatzen ari da, eta horrek lagunduko dio eskuekin trebetasunak izaten ala ez. Oso garrantzitsua da haurrari gauza horiek egiten uztea. Eta horrela-ko adibide pila bat daude.

Nola lagun dezakete gurasoek?

Lehenik eta behin ume jaio berria badaukate edo denbora gutxikoa, manta bat jarri eta utzi lurrean. Bestalde, askotan saiatzen gara haurra gure mailara ekartzen, baina umea fisikoki ez da gai ez eserita egoteko eta ez ibiltzeko. Bada ez aurreratu gauzak, jaitsi zaitez zu umearen mailara eta hor jolastu eta bera ikasten joango da. Ikasiko du ibiltzen, lau oinean ibili ala ez, gaur lau oinetan ibiltzeari garrantzia ematen hasi gara. Baina, hori lehen pausoa da, eta horren aurretik pauso asko daude umea oinez hasi artekoak. Mugimendu horiek umeari gaitasunak emango dizkie bistarako, zeren bistak zerikusi handia du lehen mugimendu horiekin. Azkenean, gu egokitu behar dugu bere erritmora, eta ez bera gurera ekarri.

Eta hezkuntza arloan zer egin beharko litzateke?

Hezkuntza mailan Ameriketako Es-

tatu Batuetatik datozten *Brain Gym* izeneko ikastaro batzuk egiten ari gara. Kurtso hauetan ariketa fisiko batzuk erakusten dira, momentuan blokeoak kentzen erakusten dute-nak. Adibidez, azterketa batera ikasita joan eta txurian geratzen gara. Urduritasunak, estresak eta beldur-rrak paralizatu egiten gaitu eta ga-runean dauzkagun konexioak bizi gunera joaten dira eta horiek entze-fa enborrean daude. Gu biziraute egoeran gaude eta egoera horrek ikaste prozesutik ateratzen gaitu, blokeatu egingo gaitu eta gure hel-buru bakarra egoera horretik ihes egitea edo erasotzea izango da. Ari-keta fisiko horiek estres horretatik ateratzen eta konexio neuronal ho-riek hobetzen lagunduko digute. Bi-ziraute egoera horretatik atera eta erlaxatzen.

“ Guk egokitu behar dugu haurren erritmora, eta ez bera gurera ekarri”

Hori nola landu daiteke?

Oso erraz. Hogeita sei ariketa fisiko dira. Adibidez, batean eskubiko be-soa eta ezkerreko hanka gurutzatu behar dira eta alderantziz. Mugimendu horrekin aldi berean ezkerreko eta eskuineko hemisferioan aktibazio batzuk egitea lortzen da, garunean egiten direnak. Badira ikerketak esaten dutenak memoria onena duten pertsonak dantzariak direla, eta dantzariak mugimenduan daude. Horrekin esan nahi dudana da neurologiak mugimenduekin funtzionatzen duela. Mugimenduak malgutasuna ematen dio pertsonari garunean eta ikaske-ta ere errazagoa egingo da. Helburua ez da ariketa guztiak egitea egu-nero.

Haurra oso txikia denetik garrantzia du mugimenduak, ezta?

Txiki-txikitatik. Amaren tripa ba-

rruan ere mugimenduan daude, nahiz eta mugimendu pasiboa den. Ume batek haurdunaldian gaitasun gehiago dauzka jaiotzen denean baino. Zergatik? Bere garapena urrezko ingurune batean izan da eta jaiotzen denean grabitatearekin to-patzen da. Horregatik, berreskura-tzen joan behar du eta horretarako modua lurrarekin kontaktua izatea eta bere kasa mugimenduak izatea da. Hasieran haurra kulunkan ibil-tzen dugu, mugimendu pasiboare-kin. Lehen mugimendu pasiboak gurasoek ematen dizkiote eta gero bera hasten da arrastaka interesa pizten dioten gauzen bila. Mugi-mendua beharrezkoa da garuneko neurologia guztia, zuhaitz baten adarrak bezala, hazten joateko.

Nutrizionista ere bazara. Elikadurak zer nolako garrantzia du gai honetan?

Nahikoa. Terapiako nire irakaslea suediarra da eta duela 15 urte uda pasatzera Marbellara joaten zene-an mugimenduekin bakarrik hau-rrak onera egiten zutela dio; hipe-raktibitatea, arreta falta edo autis-moa tratatzen zituen eta hilabete gutxitan izugarrikoa aldaketa iza-ten zutela dio, baina gaur egun as-koz gehiago kostatzen dela dio. Bera hori aztertzen aritu da eta iku-si du *wifi*-ek eta ez dutela asko la-guntzen. Elikadura garaian ere glu-tena, laktosa eta soja aztertzen ditu eta normalean kendu egiten ditu, batez ere autismo edo hiperaktibi-tate arazoa badute, edo baita hiru urte duten haurrak oraindik hitz egi-teko gai ez direnean ere. Kimikak, elikadura kimika moduan hartuta, zerikusi handia du. Gero eta gehia-go. Lehenengo informatu egin be-har da eta gero bakoitzak ikusiko du etxean zer egiten duen. Baina, in-formazioa daukazunean bide bat gehiago daukazu irekita eta zure aukera da hartu ala ez.

Elkarrizketa hau laburtuta dago, baina testua osorik 'ataria.info'-n irakur daiteke.

Animaliek urte ona izateko bedeikapena jasoko dute



lazko San Anton eguneko irudia. M. U.

Igandean San Anton eguna ospatuko dute Berastegin

M. UGARTEMENDIA BERAŠTEGI

Urtero bezala egun berezia ospatu-ko dute igandean Berastegin. San Anton eguna dute, eta izen bereko ermitan egingo dituzte, ohi bezala, ospakizunak. Bereztasuna, ekital-di horien protagonistetan dago. Izan ere, herritarrak euren anima-liekin bertaratuko dira, hauek be-deinkatuak izan daitezten.

Aurten igandea izanik meza 17:00etan izango da, eta bukatze-an bedekatuak ditu apaizak ani-maliak. Ondoren, askaria ere egin-go dute bertaratzen direnek.

Mota guztietako animaliak berta-ratzen dira ermitara, baina batez ere etxeko maskotak dira eramaten dituztenak. Honek guztiak badu zergatia. Animalien patroia da San Anton, eta animaliek urte ona izan dezaten bedekatzeko dira egun horretan.

Milana euro merkatari eta erosleentzat, 'Berria'-rekin

BerriaLaguna kanpainari amaiera eman diote bi zozketa eginez

JON MIRANDA AMASA-VILLABONA

Berria egunkariaren BerriaLaguna egitasmoarekin bat egin dute Amasa-Villabonako 40 merkatari. Egu-berriek iraun duten bitartean komertzio horietan erosketak egin dituzten pertsonak zozketa batean parte hartzeko aukera izan dute. Andoni Alvarez BerriaLaguna kanpainaren arduradunak adierazi duenez, «3.000 boleto inguru bete direla kalkulatu du».

Horietako bakar batek jaso du saria: Maria Jose Alberdi zizurkildar-rrak betetakoak. 1.000 euro gastatu ahal izango ditu BerriaLaguna



Aitziber Cenzano, Andoni Alvarez eta Iban Agirre, zozketaren une batean. J. MIRANDA

egin diren Amasa-Villabonako sal-
tokietan. Komertzio horietako ba-
tek, gainera, Begoñi Konponketak
izenekoak, beste sari bat jaso du.
Ondorengo urtebetean Berria-n
1.000 euro gastatu ahal izango ditu

publizitatean. Zozketan, BerriaLa-
guna kanpainaren arduradunaz
gain, Iban Agirre Amasa-Villabona-
ko alkateak eta Aitziber Cenzano
Oria merkatari elkarteko idazkariak
hartu dute parte.

Margolan erliebedunak



Iñaki Balerdiren erakusketaren zenbait lan.

Eraskusketa jarri du
bigarren ez Iñaki Balerdik
Erretirodunen tabernan

IMANOL GARCIA LANDA ALEGIA

Iñaki Balerdi lizartzarraren koadro-
ak ikusgai daude Alegiako Erretiro-
dunen tabernan, urtarrilaren buka-
era arte. Bigarren aldia da Balerdik
erakusketa jartzen duela Erretiro-
dunen tabernan. Oraingoan bi koadro
olioarekin margotu ditu. Beste-
ak hondarra erabiliz erliebea sortu
du eta gero akrilikoa erabili du mar-
gotzeko. Koadroak salgai daude,
eta interesa duenak Balerdirekin ja-
rri behar da harremanetan.

Euskal Hedabideen Behategia sustatuz

Hitzarmena sinatu zuten atzo, Hekimenek, EHU, Mondragon eta Deustuko unibertsitateek

ERREDAKZIOA

Hekimen Euskal Hedabideen Elkar-teak euskal unibertsitateekin batera sinatutako akordioak «babes instituzionala» ekarriko duela aitortu zuten atzokoan sinatzaileek: «Lankidetza markoa ezarrita geratu da erakunde akademikoen eta euskal hedabideen artean».



Bilbon egin zuten agerraldia. ATARIA

Hekimen elkartea 2012an sortu zen, eta egun Euskal Herriko 50 komunikabide hartzen ditu bere gain. Elkar-teak atzo unibertsitateekin si-

natutako lankidetza lagun, hainbat oinarri ezarri ziren aurrerantzean Euskal Hedabideen Behategirako: ikerketa, berrikuntza eta prospektiba garatzea, euskal hedabideen datu basea sortzea, irakasleen eta profesionalen komunitatea sortzea eta euskal hedabideei buruzko topagunea garatzea, eta, bestek bestek, euskal hedabideen sektorea indartsuagoa eta eraginkorragoa egiteko helburua dute.

Gauzak honela, eragileek azpimarratutakoaren arabera, «sektorearentzat ez ezik, unibertsitateko ikerlarintzat Behategiak daukan garrantzia, lankidetza gune berria irekitzen duelako euskal hedabideen eta komunikazio adituen artean, eta ateak zabalik dituelako bai administrazioentzat nola sektore publikoarentzat».

GOI ESKOLA
POLITEKNIKOA
ESCUELA
POLITÉCNICA
SUPERIOR

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

INGENIARITZA GRADUETAKO ATE IREKIAK

GOIERRIKO CAMPUSA

URTARRILAK 21

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

MARTXOAK 12

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

MAIATZAK 19

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

Arranomendia, 2. ORDIZIA tel. 943 88 00 62 /
bulegoa@goierrieskola.org



Merkataritza elektronikoaren munduan barneratu nahi duten merkatarientzat aukera paregabea

Txikizkako saltokiei, merkataritza elektronikoaren munduan lehen pausoak ematen laguntzeko asmoz, Spri-k Tolosaldea Garatzenen laguntzarekin saltoki txikiei zuzendutako egitasmo bat du martxan. Abenduan aurkeztu zen ekimena baina oraindik ere interesa duten merkatariek parte hartu dezakete bertan. Proiektu honi esker, online saltokia diseinatu, egin eta kudeatzen erakutsiko diete merkatariei eta gainera, erabat doan.

Egitasmoaren helburua da txikizkako saltokiek beraien produktuen salmantan interneten txertatzen joatea eta modu horretan, salmenta interneten bidez ere gauzatzea. Horrela, beraien produktuak merkatu elektronikoan sartzea lortuko dute eta adibidez, sare sozialen bitartez zuzenean burutu salmenta. Era berean, gehien saltzen duten online denden sarean urratsak ematen ere erakutsiko zaie eta behin tresnak sortu ostean, horiei jarraipena modu egokian ematen. Finean, lehiakorrakoak izatea eta ospea irabaztea da xedea.

Egitasmoan parte hartu edota informazio gehiago eskuratu nahi

duenak bi bidetatik egin dezake. Batetik, Tolosaldea Garatzenen bitartez, aduriz@tolosaldea.eus helbide elektronikora idatzita edota 943654501 telefono zenbakira deituta. Eta bestetik, Spri-rekin harremanetan jarrita, 902 702 142 / 943 000 850 telefono zenbakietara deituta edota info@spri.eus / comercioelectronico@spri.eus helbidera idatzita.

Bestetik, aipatutako helburuak erdiesteko, aholkularitza teknologiko honen bitartez zerbitzu pertsonalizatua jasoko duela saltoki bakoitzak, neutrala eta doakoa izatearekin batera. Aholkularitza zerbitzua jasotzeko interesatuek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan izen soziala duen txikizkako saltokia izatea eta bestetik, online ingurunean sartzeko ezagutza nahikoa izatea. Horrekin batera, parte hartu aurretik, interesatuek inkesta bat bete beharko dute eta bertan bakoitzaren errealitatea nahiz helburuak zeintzuk diren zehaztu. Horrela, bakoitzaren beharrei egokitutako aholkularitza zerbitzua eskaini ahal izango da. Zerbitzuak pakete batzuk prestatuko

ditu eta hauek pertsonalizatuak izango dira. Honez gain aipatu ere, parte hartzaile bakoitzari bere produktuak saltzeko behar dituen erremintak ezarriko zaizkiola, ondoren, ikastaroa amaitu ostean lan horrekin jarraitu dezan.

Aurrez azaldu bezala, saltoki bakoitzaren behar eta errealitateetara egokitutako paketeak osatuko dira, bertan bakoitzak online ingurunean dituen helburuak identifikatuz eta saltokiarentzat ondoen bideratutako zerbitzuak esleituz. Orotara lau pakete ezberdin daude eta bakoitzak berari egokitzen zaiona hartu beharko du:

- 1. Ecommerce ezarpena:** Oinarriko ecommerce baten ezarpena.
- 2. Ecommerce optimizazioa:** Ecommerce-aren optimizazioa jadanik ecommerce bat martxan duten saltokiei bakarrik ezarri ahalko zaie.
- 3. Sare sozialetan salmenta:** ecommerce prozesuetan zentratzen da sare sozialen bitartez.
- 4. Kanpo webetan salmenta:** Saltoki txikiei kanpo webetan sartzeko arrisku handirik gabe merkatu handietan sartzeko ahalbidetzen die.

Mailoko herri larreetarako izena emateko azken eguna hilaren 18a da

I. GARCIA LANDA ABALTZISKETA

Abaltzisketako Udalak Mailoko herri larreetara bere ganadua eman nahi duen ganaduzaleei deia egin die izena emateko. Datorren astelehenean bukatzen da horretarako epea. Izena udaletxean eman behar da eta ganadu kopurua ere zehaztu behar da.

Mailoko larreak Aralar parkearen barruan daude, baina Abaltzisketako herriarenak dira. Herritarrei zuzenduta dago deialdi hau, eta bertara behi, behor, ardi eta ahuntzak igo daitezke. Larreek 108 hektarea dituzte, eta Larraitzetik Txindoki bidetara daude, hegoaldeko eta iparraldeko.

Zortzi edo bederatzik ganaduzalek eman ohi dute izena Mailoko larreetarako. Ganadu kopuruari dagokionez, 110 behi inguru, 200-220 ardi inguru, 30 ahuntz inguru eta behorrek 50 buru izan ohi dira. Azken hauek udazkenean sartu daitezke herri larreetara; bitartean, Enirio-Aralar Mankomunitateko lurretan egon ohi dira. Izena orain ematen bada ere, maiatzaren 1etik aurrera eraman daiteke ganadua larreetara.

Zuhaitz parkearen esleipena

Larraitzen dagoen zuhaitz parkearen zerbitzua emateko lehiaketaren deialdia egin ondoren, atzo arrasaldeko osoko bilkuran esleipena ematekoak ziren udalbatzako kideak. Orain arte kudeaketa egin duen Bizibiziki enpresa bakarrik aurkeztu da lehiaketara, eta beraz, berak jarraituko du zuhaitz parkearen ardura izaten beste epe batez.

Gutunak

SOLDATAK

Udalaren jardunean ariketa garrantzitsuenetako bat da urteko udal aurrekontuak onartzea. Hain zuzen ere, Tolosak, 2016koak, joan den abenduan onartu zituen, udal gobernuaren eta oposizioaren arteko adostasunik gabe.

Oposizioak aurrekontuaren gaineko iritzia prentsurreko batean eman zuen Osoko Bilkura bezperan. Horrek begi bistan uzten du ez zutela inolako gogorik akordio-tara iristeko udal gobernuko taldearekin. Pose politikoa besterik ez, desadostasunik azpimarratzeko, serio eztabaidatzeko inolako asmorik gabe.

Udala osatzen duten alderdi politiko bakoitzak erabakitzen du zein den modurik egokiena gobernu edo oposizio lanak egiteko. Modu eraikitzailean edo guztiz negatiboan; norberak hartzen ditu erabakiak, kontuan hartuz modu batera edo bestera aritzeko dituen arrazoiak. Lan eginez herritarren interesen alde edo, besterik gabe, adierazpen publikoak eginez, hau da, pose politikoak agerpen demagogiko handiekin.

Gobernantza berrian edo politi-

ka egiteko beste modu horren barruan haxe dago: alderdi politiko guztien diskurtsoetan partizipazioa eta gardentasuna. Udalaren azken Osoko Bilkura bezperan EH Bilduren udal taldearen bozera-maileak esan zuen udal politikari- en soldatek % 45eko igoera izango zutela. Hori gezur hutsa da. Soldatak aurreko aldiko berdina dira; ez euro bat gehiago, ez euro bat gutxiago.

Uste dut nire betebeharrak eta nire eskubidea dela eskatzea Tolosako udal ordezkari- en kontuan izanik lehen esandakoa, hau da, politika gardena egitearena- herriari egiazko informazioa eman behar zaiola, interes alderdikoi eta demagogikoetatik at. Errespetatu behar den lehenbiziko premisa haxe da: GEZURRIK EZ ESATEA. Herriaren alde lan egiteko modu horrek erakusten duen gauza bakarra da heldutasun politiko falta.

Ordezkarik publikoen gestioak eraginkorra eta gardena izan behar du; eta, batez ere, EGIATZKOA, manipulazio eta gezurrik gabea.

Olatz Peon Ormazabal
Tolosako alkatea

Hilberriak eta urteurrenak





JONE IGUINIZ

*Hainbeste amets negar eta desio
ez du ekaitzak hondora botaka
salbatuko da goizeko ontzia
kaiaren bila hegaka joaiteko*

PRESO ETA IHESLARIEN ATAUNGO TALDEA



ATAUNEN, 2016ko urtarrilaren 15ean



**JOXE ANGEL
SARASOLA**

Herri kiroletatik

Otaño, binakakoa eta apustuak

Aizkolari oso fina; oso txukuna. Eta benetan pena bat da. Aizkoran ikustekoa zen, begira egoteko horietakoa. Dena zuen, goran ibiltzeko, onenen artean. Zorteak ez dio lagundu, beti esan dugu hori. Horrelako aizkolaria izanda pena bat da.

Unai Otaño pertsonalki ezagutzen dut. ATARIA-ri esanak ezagutzen nituen, eta atsedenaldiaren ondoren ea zer gertatzen den. Mutil umila da Otaño, eta guretzat, herri kirolen bueltan ibiltzen garenontzat, balio handiko pertsona. Edozertarako deitu eta beti bere esku zegoen guztia egiteko prest. Zintzoa.

Binakako Urrezko Aizkolarien txapelketan, hirugarren jardunaldia jokatu zen aurrekoan, Urrestillan. Atutxa III.ak eta Mugertza II.ak berririo irabazi zuten, eta finalerako sailkatu dira. Lau minutuko aldea atera zien Arria V.a eta Larrañagari. Bertan izan nintzen, eta amaieran errezildarrarekin hitzegiteko aukera izan nuen. Eta berak argi esan zuen denok ikusi genuena, zutikakoan, bakarka, pultsu guztia joan zitzaiola. Eta ez zuen buelta ematerik izan, inondik inora. Eta hor, denborak ihes egin zien, eta bikote batean batek huts egiten baldin badu, jai dago. Hortxe egon zen gakoa, eta horrelakoak, ziur, gehiagotan gertatuko direla.

Zutikako lana berezia da, es-

kuek beste lan bat egin behar izaten dute, eta horrek besoetan izaten du ondoren eragina. Ongi entrenatuta egon behar da horretarako. Eta Arria V.ari gertatu zitzaiona, aurrekoan Larretxeari gertatu zitzaion. Biak gogor aritu dira lanean azken hilabete luzee-tan, etzandako enborren gainean. Orain kolpetik zutikakoa tokatu zaie, eta nabari da.

Beste aipamen bat merezi duena Mugertza II.a da. Gaztea izan arren, txapelketa hau birritan irabazi du Atutxa III.arekin. Azken hau badakigu nor den, eta nolako dohainak dituen. Baina Mugertzari ere berea eman behar zaio. 75 kiloko aizkolaria da, besteen kolperik ez duena, baina nola egiten duen aizkoran. Bikoteka oso lan polita egiten du, eta Urrestillan jendea hitz egiten aritu zen gazteaz. Egurra nola pasatzen duen ikustekoa da: zoragarria. Arrospideri behin baino gehiagotan entzun diot, hor dabilzanen artean, erramienta hobekien erabiltzen duena Mugertza II.a dela. Zerbait bada Arrospidek hori esatea.

Txapelketak igande honetan laugarren jardunaldia izango du, Leitzan, 12:30ean. Arria V.a eta Larrañaga alde batetik, eta Re-kondo-Saralegi bestetik. Irabazlea multzoko bigarren geldituko da, eta finalera sartzeko beste multzoko bigarrenaren aurka jokatu beharko dute.

Amaitzeko apustu berri baten berri eman beharra daukagu.

Eneko Otaño beizamar gazteak eta Mikel Mindegiaren semeak, Migeltxok, martxoaren 20an Donetzteben jokatu dute. 3.000 euro alde bakoitzak eta egin beharreko lana: 12 kanaerdiko eta lau 60 ontzako. Migeltxo Mindegia duela 6-7 urte hasi zen aizkoran, eta orain 25 kilo gutxiagorekin dago. Hala eta guztiz ere 100 kilotik gorako 35 urteko gaztea da. Lan motzetan, oso ondo moldatzen dela erakutsi du Mindegia. Horrelako lan batean nola moldatzen den ikusi beharko da orain.

Olasagasti eta Atutxa III.aren arteko apustuaz ere bada zer esana. Botatako diruak ez dituzte jaso, eta momentuan apustua bertan behera utzita baldin badute ere, azaroan Olasagastiren mina nola dagoen ikustekoak dira; apustua egin edo ez erabakitzeko.

Egin edo ez dagoen beste apustua Larretxeak bota duena da. 24-30 kanaerdiko erronka bota du Arantzakoak. Aitzol Atutxari zuzendu bazio ere, edonorren aurka egiteko prest agertu da Larretxea. Hori bai, baldintza ere jarri du: kanaerdikoetara bakarrik. Zenbat? Beste aldeari aukera hori zabalik utzi diote larretxeatarrek. Joaten zaiona joanda ere, ez lukeela atzera egingo esan du Donato Larretxeak. Arria V.arekin apustua jokatu berria da Arantzakoa, eta erabat gustura ez baldin bazen ere aritu lanean, irabazi egin zuen, eta orain, gogotsu dago beste apustu bat jokatzeke. Kontatuko dugu kontua nola geratzen den.

URTARRILAK 15, OSTIRALA

ALEGIA, Elorri

19:00. Esku pilota.
Intxurreko infantilen bi partida.

AMASA-VILLABONA, Beharzana

19:30. Esku pilota. Behar Zanakoen
bi partida, infantilena eta nagusia.

ASTEASU, Usarrabi

19:00. Esku pilota. Atzaparrekoen bi
partida, alebinetan.

BIDANIA-GOITZ, Ernio

20:30. Esku pilota.
Aurrera Saiazeko nagusien partida.

IRURA, Ametsa

20:15. Xare. Ametsakoen arteko na-
gusien mailako partida.

LIZARTZA

19:00. Esku pilota. Tolosakoen hiru
partida, infantil eta kadeteetan.

TOLOSA, Beotibar

19:30. Esku pilota. Tolosakoen hiru
partida, alebin eta infantiletan.

ZIZURKIL, Intxaur

18:30. Esku pilota. Ziotzakoen lau
partida. Infantil, kadete eta jubeni-
lak.

URTARRILAK 16, LARUNBATA

ALEGIA, Elorri

10:00. Futbola. Intxurre-Lagun
Onak. Jubenil neskek.

AMASA-VILLABONA, Arratzain

11:00. Futbola. Billabona FKE-Da-
nena. Infantilak.
17:30. Futbola. Billabona FKE-Ordi-
zia. Erregionalen lehen mailako par-
tida.

IRURA, Ametsa

16:15. Esku pilota. Kadete, jubeni-
l eta nagusien partidak. Guztira, lau.
Hirugarrena Aurrera Saiazekoena.

TOLOSA, Beotibar

09:00. Esku pilota. Tolosakoen
arteko bi partida, kadeteetan.
16:30. Esku pilota. Tolosako pilota
eskolakoen bost partida, kadete eta
infantiletan.

TOLOSA, Usabal

09:00. Saskibaloia.
TAKE-ko taldeen zazpi partida
jarraian. Azkena 14:00etan.
09:00. Futbola. Tolosa CFen zazpi
partida. Azkena, 17:30ean.
09:30. Eskubaloia. Tolosa CF-en lau
partida. Azkena, 12:50ean.
16:00. Areto futbola.
Laskorain-Makax, bigarren maila.
16:30. Eskubaloia.
Tolosa CF-Ereintza, seniorretan.
18:00. Areto futbola. Laskorain-Bil-
koin. Nazio mailakoa.

URTARRILAK 17, IGANDEA

AMASA-VILLABONA, Arratzain

10:30. Futbola. Billabona FKE-Osta-
dar. Futbol eskolen topaketa.

ALEGIA, Elorri

11:00. Esku pilota.
Intxurreko jubenen partida.

TOLOSA, Beotibar

16:30. Esku pilota.
Migel Soroa Ogi Berri Txapelketa:

- Jubenilak:
Alberdi-Salaberri
Anso-Aizpuru
- Promesak:
Elizalde-Mariezcurrrena
Mikel Goñi-Salegi
- Elite maila:
Peña-Gorrotxategi
Bakaikoa-Murgiondo

talde nagusiak

Tolosa CF

Martutene

Urtarrilak 17, igandea,
Ohorezko Erregional Mailako
partida, 16:30ean,
Berazubin.

Tolosa CF

Allerru

Urtarrilak 16, larunbata,
15:30ean, emakumeen
Erregional Mailako igoera
faseko partida, Tolosako
Usabal kiroldegian.

Aurrera de Vitoria

Lauburu Ibarra

Urtarrilak 16, larunbata,
bigarren b mailako partida,
Gasteizen, 18:30ean.

Usurbil

Tolosa Eskubaloia

Urtarrilak 16, larunbata, lehen
mailako partidak, 19:30ean,
Usurbilen.

Cantabria

TAKE Saskibaloia

Urtarrilak 16, larunbata, EBA
Ligako partida, Cantabrian,
17:30ean.



Lauburuk kanpoan jokatu du. ATARIA



Bertso plaza ere bada Leidor

Tolosaldeko euskarazko hedabideen ekimenez zazpigarren urtez jarraian antolatu da bertso jaialdia Tolosako Leidorren. Urtarrilaren 23an 18:00etan hasiko da eta puntako sei bertsolari ariko dira Amaia Agirreren esanetara.

JON MIRANDA

Tolosaldeko bertsozaleak aspalditik gorri seinalatua du egutegian urtarrileko azken aurreko larunbata. Badaki, Tolosako Leidor aretora gerturatuz gero arratsalde pasa ederra egingo duela bertan: puntako bertsolariak, gai jartzaileak jarritako gatz eta piperra eta publikoaren berotasuna. TOLOSALDEKO ATARIA mimo handiz ardurtzen da saioa antolatzeaz publikoaren gustagarri gerta dadin.

Aurten, urtarrilaren 23an izango da hitzordua 18:00etan hasita. Beti bezala, Amaia Agirre billabonatarra ariko da saioa aurkezten eta bertsolariei lana ematen eta kantuan sei bertsolari: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Aitor Mendi-luze, Beñat Gaztelumendi eta Unai

Mendizabal Mendi. Aurtengoa zazpigarren aldia izango da bertso jaialdia antolatzen dela Leidorren. Hasierako urteetan eskualdeko euskarazko irratiak, *Txolarre*-k, hartu zuen antolakuntza bere gain eta behin TOLOSALDEKO ATARIA osatuta, komunikazio taldea da saioa aurrera eramateaz ardurtzen dena.

Gaur egun Leidorreko bertso jaialdiaren data barneratua du eskualdeko bertsozaleak, baina aurreneko urtean ez zen izan hura antolatzaileek bertso saiorako aukeratu zuten eguna. Joxemi Aranburu, garai hartan *Txolarre* irrati talde eragileko kideak gogoratu du: «Hasiera batean igande arratsaldean pentsatu genuen jaialdia antolatzeko, baina aste batzuk lehenago Tolosako Udaletik abisua pasa ziguten esanez beste ekitaldi bat zegoela egun ho-

rretan. Larunbatera aurreratzea erabaki genuen, eta asko pentsatu ez arren, asmatu genuela esango nuke». Bere tokitxo egin du Tolosako saioak urtarrileko bertso agendan, hilaren hasieran Etxeratek Oiarzunen antolatzen duen jaialdiarekin eta urtarrileko azken larunbatean Donostian ospatzen den Bertso Egunarekin batera.

Tokiko hedabideak sustatuta urtero antolatzen den saio honek bertso plaza gisa ere egin dio Tolosari bere ekarpena. Aranburuk gogoratzeko duenez, «bagenekien sanjoanetako bertso saioaz gainera, udazkenean antolatzen zela beste jaialdi bat Leidorren baina azkeneko urteetan galduta zegoela edo ez zuela behintzat arrakasta handirik izaten». 2010ean *Txolarre* irratiak lehen aldiz probatu eta plaza egonkortzea



lortu zuten. Ondorengo sei urteetan hutsik egin gabe 800dik gora bertsozale elkartu dira urtero Leidorren.

Bertsoari eman eta bertsoetik jaso

Kultur ekitaldi gutxiak lortzen dute urtean zehar Tolosan hainbeste jende biltzea. *Txolarre*-ko kide Aranburuk dioenez, «guk une hartan bertso jaialdia antolatzea erabaki genuen premian genbiltzalako eta diru iturri garrantzitsu bat izan zitekeela ikusten genuelako. Ideia horrekin jo genuen laguntza eske Tolosako Udalera eta lankidetzak eskatu genien bertso munduko lagunei, Amaia Agirreri eta inguruan sumatzen genituenei. *Txolarre*-ko taldekook ere gogor lan egin genuen, batez ere komunikazioan. Lehen urteetan Gipuzkoa osora zabaldu

genituen jaialdia iragartzeko kartelak».

Helburu ekonomikoaz gainera, beste asmo batekin ere antolatu zuen *Txolarre* irratia 2010. urteko bertso jaialdia. 10. urteurreneko ospakizunei amaiera emateko baliatu nahi izan zuten ekitaldia: «*Kabitik Plazara* izenarekin urteurrena ospatzeko ekimenak antolatu genituen eskualdean zehar, herri kirol jaialdiak, kantu saioak, kontzertuak eta horretaz gain hiru herritan bertso saioak antolatu genituen: Zizurkil Goiko Zentroan Amaia Agirre buru zela garai hartako 11 Bertute taldekook izan ziren eta saio musikatu eta ganberroa eskaini ziguten. Alegian Aitor Mendizule eta Iker Zubeldiarekin bazkaria antolatu genuen eta, Tolosan, lurre elkarteetan, bertso afaria egin genuen eta bertan Irazu, Peña-

garikano eta Bixente Gorostidi egon ziren. Dena oso ondo atera zen, saioen bidez bertsolariekin geneukan harremana gehiago sendotu zen», azaldu du Aranburuk.

Harreman horren emaitza izan zen 2010eko urtarrilaren 23an antolatu zen lehen bertso jaialdia. Harremanak jarraitu du eta arrakastatsu izaten segitu du urtero antolatzen den bertso saioak. Gaur egun, **TOLOSALDEKO ATARIA**-ko administrazio kontseiluko kide da Aranburu eta gogoratu duenez, «euskarazko hedabideon egitekoa gure komunitatean eragitea da. Aktibo dauden eragile horiei euren lana komunikatzeko eta zabaltzeko tresnak eskaini behar dizkiegu. Bertsozaleetasuna bizi-bizirik dago Tolosaldean eta jaialdi hau antolatzeak berak erakusten du **ATARIA** baliagarria zaigula bertsolaritza bizitzeko».

Elkarlanean antolatutako jaialdia

Elkarlana ezinbesteko baldintza izan da azken bost urteetan Leidorren ospatutako bertso jaialdia antolatzeko. Aurten ere, aurreko urteetan bezala, Tolosako Udalaren babesa izango du saioak eta Lanku Bertso Zerbitzuak eta Mahala baserriko produktuen laguntzarekin batera Harituz Bertsozaleen Elkarguneak jardun du aurtengo saioaren antolaketan.

Leidorreko oholtza gainean ariko den seikotea erabakitzerako orduan, Harituzeko kideekin batera lanean izan da TOLOSALDEKO ATARIA-k. Besteak beste, eskualdeko bertsozaleen elkarguneko kide den Unai Mendizabal *Mendi* ariko da bertsoan, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Aitor Mendiluze eta Beñat Gaztelumendirekin batera.

Datorren hilaren 23ko bertso jaialdiaren zabalpena eginez ere jardun dute Harituzekoek. Eskualdeko herrietan bertso saioa iragartzeko kartelak jartzen lagundu diote TOLOSALDEKO ATARIA-ri eta euren bitartekoak ere erabili dituzte jaialdiaren hedapena egiteko.

Izan ere, Harituz Bertsozaleen Elkarguneak, hiru lan lerro nagusi ditu. Transmisioan egiten dute, adibidez, ahalegina: hezkuntza arautuan eskualdeko ikastetxeetan *Gu ere bertsoan* programaren bitartez bertsojaritza erakutsiz. Haur, gazte eta helduentzako bertso eskolak ere badituzte martxan eskualdeko hainbat herritan.

Tolosaldean bertsojaritza sustatzea du bigarren egitekoa Harituz Bertsozaleen Elkarguneak. Datorren urtarrilaren 23ko *Ataria Bertso Jaialdia* bada, eskualdeko bertso saioen mapan gorritz markatutako hitzordua, «horregatik prestutasun osoa du Harituzek jaialdi hori sustatzen», nabarmendu du elkarguneko lehendakari lanetan ari izan den Mikel Artolak. Duela gutxi antolatu zuten, adibidez, bertso jarrien afaria Altzon eta 50 lagun inguru gerturatu ziren bertara. *Bertso Truk* ekimean ere hartzen du parte gure eskualdeko elkarguneak. Hurrengo saioa, martxoaren 19an egingo dute Tolosan, Leitzako bertsojariekin batera.

'(H)ari naizela' irratsaioa Atarian

«Hedapen arloan gabiltza hanka-motz», aitortu du Artolak, «orain arte, Harituzek bere Facebook orria kudeatu baino ez du egin». 2015eko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketari ATARIA irratian egin zitzaion jarraipena ikusita, «aukera hori baliatzea interesgarria iruditu zitzaigun eta egiten dugun lana zabaltzeko erabili genezakeela ATARIA». Igandetik aurrera, beraz, *(H)ari naizela* irratsaioa egingo du Harituzek ATARIA irratian.

Imanol Artola *Felix* arduratuko da saioa gidatzeaz: «Hemen Tolosaldean antolatzen diren bertso saioei jarraipena egingo diegu bereziki. Saio horietan egon eta han jasotakoak emango ditugu irratsaioan». Bertsozale Elkartearekin gauzatutako hitzarmenari esker, beste eskualdeetako bertso saioetan entzundakoak ere ekarriko dituzte eskualdeko uhinetara. «Pixkanaka forma hartzen joango da saioa, baina printzipioz bertso historikoei egingo diegu tarte as-tero eta gonbidatu bat ere ekarri nahi genuke estudiora, berekin batera, bertsoak komentatzeko». Astero aldizkari honetan bertan Harituzeko kideek prestatzen duten bertsoa entzuteko aukera ere izango da *(H)ari naizela*-n eta aurrera begira bertso jarriak musikaz lagunduta emateko asmotan dira.

TOLOSALDEKO ATARIA-k sustatu eta Harituz Bertsozaleen Elkarguneak gauzatuko duen irratsaioak, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen babesa izango du. Jon Agirresarobe elkarteak sustapen eragilearen hitzetan, «aspaldi honetan gutxitu egin da tokiko hedabideetan bertsojaritzaren jarraipena egiten duten irratsaio eta bestelakoak eta elkartetik badugu asmoa horiek bultzatzeko». Baliabideak bideratuko dituzte horretarako eta erraztasunak emango dituzte Xenpelar Dokumentazio Zentroaren bitartez beste eskualdeetan grabatutako bertso saioak Harituzekoek eskutan jartzeko. «Tolosaldean, orain, abiatzen dugun bidea, beste eskualdeetako medioentzat adibide eta eredu izatea espero dugu».

Hemendik aurrera, ATARIA irratian, igandean, 14:00etan hasita entzun ahal izango da *(H)ari naizela* eskualdeko bertsojaritzari buruzko irratsaioa. Asteazken iluntzetan, 20.00etatik aurrera errepikatuta eskainiko da. Etzi, estreinako saioan, Imanol Artolak Felix Irazustabarrena alegiarra izango du gonbidatu. *Felixetik* Felixera ariko dira, hortaz.



EZUSTEZ BETETAKO SAIOA

Kontsolidatutako bertso jaialdia da Leidorren ATARIA-k antolatzen duena, besteak beste, hori behar bezala prestatzen lana hartzen duelako Amaia Agirrek. Bertsolari bezala aspaldi ezaguna dugu billabonatarra baina duela sei urte, 2010ean, *Txolarre* irratia eskatuta gai jartzaile bezala lehenengo plazatakoa izan zuen Tolosakoa. Ordutik hona, behin baino gehiagotan ikusi dugu bertso lagunei gaiak ematen.

«Egia esan, lehenengo aldi hartaz ez daukat oroitzapen handi-handirik. Plazetan nenbilen eta *Txolarre*-ko kideekin harremana banuenez, pentsatzen dut horregatik jo zutela niregana. Niretzako tranpolin bat izan zen; *Hitzetik Hortzera*-koek saioak grabatu dituztenez oihartzun handia izan dute eta lehenengo aldi hartan ere ondo atera zenez, niri ere bidea eman dit gai jartzen ibiltzeko», aitortu du Amaia Agirrek. Leidorren antolatutako jaialdietarako gaiak prestatzen, ordea, ez da bakarrik aritu billabonatarra, «garbi utzi behar dut, mikrofono aurrean ni egon arren antolatzaile lanetan ibili direnak atzean eduki izan ditudala beti eta gaien laurden bat behintzat haiek proposatutakoak izan direla».

Tolosako Leidor «toki zoragarria da gaiak emateko, bertsotarako eta

baita bertso saio bat entzuteko ere», nabarmendu du Agirrek. Aretoak eskaintzen dituen aukerak baliatu nahi izan dituzte antolatzaileek jaialdia prestatzerakoan: «Gisa horretako oholza batean ez gara askotan egoten gaiak jartzen eta ezta bertsotan aritzen. Espazioak berak bide ematen zigula konturatu ginen eta aukera baino, derrigortuta geundela zerbait berezia egitera». Behin gauzak ondo egiten direla entzuleak gauza berriak desio ditu, baina Agirrek aitortzen duenez, «ideiak agortzen joaten dira. Modu horretara ohitu ditu entzuleak eta orain gogo hori elikatu egin beharra dago. Noiz arte? Nirea agortzen denean beste iturrietara jo beharko dute antolatzaileek».

Aurreko urteetan une gogoangarriak utzi ditu Leidorren antolatutako bertso jaialdiak: «Nik badauzkat momentu batzuk oso gogoan. Lazkaoko bertso eskolako neska-mutilak etorri zirenean. Puntuak jartzeaz gain, Maialeni atzekoei kantatzen ari zitzaien bitartean lore batzuk eusten jarri nituen eta ikustekoa zen nola begiratzen zioten txapeldunari miresmenez». Beste aldera atera direnak ere egon dira: «Oinkariko pare bat dantzari ekarri nituenean bezala. Dantza eta bertsoa uztartzen saiatu ginen baina belarriak batera

eta begiak bestera, fusioak ez zuen nahi bezala funtzionatu». Askotan gogoratzen gara ariketa bereziekin, baina ariketa soilek, gaia hitzez ematen diren horietan ateratzen dira bertsoaldi onenak.

Aurtengo jaialdiaren inguruan galdetuta Agirrek dio, «pantailak behar bada aurreko saioetan baino presentzia txikiagoa» izango duela. «Aurpegi ezagunen bat agertuko da eta bertso munduko jendea ere igoko da oholza gainera ariketaren batean». Hala eta guztiz ere ez du ezer zehaztu nahi izan, saioa hasi aurreko orduak arte ez du gidoia erabat itxen, «saioan zehar inprobisatzen ere jardun izan dut behin baino gehiagotan».

BERTSO JAIALDIA

Bertsolariak: Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Unai Mendizabal.

Gai jartzailea: Amaia Agirre.

Sarrerak: 10 euro. Tolosa: Raku, Orbela eta Kantabriko. Alegia: Route 33. Villabona: Amasa kafetegia. Zizurkil: Iriarte. Ibarra: Zubiarre.

Eguna: Urtarrilak 23, larunbata.

Ordua: 18:00.

Tokia: Leidor aretoa, Tolosa.

BERTSOLARIAK

Sei bertsolari ariko dira oholta gainean urtarrilaren 23an.
Jatorriz nongoak diren, bertako tokiko hedabideei eskatu diegu bertsolari bakoitzaren aurkezpena egitea



Maialen Lujanbio Zugasti
(Hernani, 1976)

Bertsolaria dela esatea, motz gerezten da, Maialen Lujanbiori buruz arituz gero. Bertsotan, pentsamendu sakonekoa da, gutxiarekin asko esaten duen horietakoa; horregatik, publiko guztietara iristen da. Pentsalaria ere bada, eta iritzia sortzen du. Beti bere lekua egin izan du, eta umil asko darama hori. Hala erakusten dute, Euskal Herriko finalaren ondorengo hitzek: «Eske-rrak eman nahi dizkiet hainbeste lan egin duten horiei, guk dena listo izan genezan. Gu saiatu gara lan hori lanarekin itzultzen; opari bat egiten, guk dakigun moduan». Umiltasun horrekin, eta daukan izaera herrizalea medio, segurua da gus-tura entzuteko saioa emango due-la, Hernaniri laguntzeko egiten due-nean bezala, kasu honetan, TOLO-SALDEAKO ATARIA-ren inguruan jarraitzaileak biltzeko.

Hernanik
kronika



Andoni Egaña Makazaga
(Zarautz, 1961)

Aurkezpenik ez du behar. Euskal Herriko Bertso Txapelketa Nagusiko lau txapelekin, txapeldunetan txapeldunena da. Bertsolaria izateaz gain, ikertzaile eta teorizatzaile moduan ere nabarmendu da. Azpimarragarria da bat-bateko bertsoa sortzeko prozesua azaltzeko eta ezagutarazteko egin duen ekarpena. Bertsolaritza beste kultur diziplina batzuekin ere uztartu du; besteak beste, *Gabrielen Lekua* sentikarian, Bertso Jazz proiektuan edo, azkenaldian, Xabier Lizaso piano-jotzailearekin batera, *Bi arreba* eta *Garai hura gara* ikuskizunetan. *Urola Kostako Hitza*-ren 5. urteurreneko bertso jaialdian hartu zuen parte.

UROLA KOSTAKO
HITZA



Unai
Iturriaga Zugaza-Artaza
(Durango, 1974)

Artista polifazetikoak da, eta dela bertsogintzako lanagatik, dela diseinu arloko edo komikigintzako bere jardunagatik, Gu ta Gutarrak taldean egin zuen ibilbideagatik, edo baita askotariko kolaborazio eta elkarlanak proposatzeko, sarri-sarri jo izan du *Anboto*-k Unai Iturriagagana. Polifazetikoak da, eta perfil eta plano askotan agertu da astekariko elkarriketa eta albisteetako argazkietan. Polifazetikoak izanik, baina, aurpegiera bakarra erakutsi izan dio Durangaldeko astekariari, beti: laguntzeko prest dagoenarena.

Durangaldeko jende askoren-tzat bezala, eskualdeko komunikabideko langileontzako ere, pertsona miretsi eta maitatua da.

 **anboto**

«Berriak hain globalak diren mundu baten / komunikabideak gauz berak esaten, / denok bazka beretik edaten ta jaten, / hedabide txikiek ze balio daukaten. / Segi herriko ahotsei lekua ematen».
2010eko bertso jaialdian Maialen Lujanbioren bertsoa.



**Aitor
Mendiluze Gonzalez
(Andoain, 1975)**

Andoainen jaioa. Azken urteetan Iruran bizi bada ere, jaioterriarekin harremana mantentzen du; besteak beste, bereak dira herriarekin lotuta sortutako hainbat abestiren letra: Andoain herriaren edota Sorabillaren ereserkia, baita Joxe Mari Iturzaeta pilotariaren omenezko abestiaren hitzak ere, Joxe Mari Oiartzabal musikariarekin eskuz esku osatua. Sahararen alde, Andoaingo Hurria Sahara elkarrekin antolatzen duen bertso saioan urtez urte hartzen du parte hasieratik. 2014ko apirilean Andoaingo herriak zor zion esker oneko ekitaldia jaso zuen Jokin Sorozabalekin batera.

Bertsolari jantzia, bizkorra, sakona... Bertso estilo propioa du. Bertsoak serioaren atzean, umore eta ezten bizia dituenak.



**Beñat
Gaztelumendi Arandia
(Añorga, 1987)**

Erregularotasuna da zalantzarik gabe Beñat Gaztelumendi definitzen duen hitza. Haurra zela hasi zen bertso eskolan, aitaren pausoak jarraituz, eta Unai anaia gaztea izan du bidelagun fideleena, urte horietan guztietan. Badu poesiarako joera, baina gai umoretsuetan ere ez da atzean gertatzen. Plaza asko eginak ditu, eta Txapelketa Nagusiko finalera iritsi izanak plaza berrietara eramane du azken urteetan; hala, bertsolari «osoagoa» bihurtu dela adierazi zion *Irutxuloko Hitzari*. Kartzelakoa du ariketarik gogokoena, eta, minutu batzuetan pentsatzen aritu ostean, jarraian bota ohi ditu hiru bertsoak. Leidorren erakutsiko du zergatik jantzi duen Gipuzkoako txapela. Ez du inoiz hutsik egiten.



**Unai Mendizabal Jauregi
(Zizurkil, 1992)**

Asteasuko bertso-eskolan hasi zen bere bertsozaletasunari bidea irekitzen dozena bat urte zituela. Ataria bertso jaialdian gidari eta gai-jartzaile izango duena bera izan zuen bide-erakuslea urte dezentetan. Bere bidea ez da izan gaurko bertsolari gazte askoren antzekoa, usadiorako, berandu samar ekin baitzion jendaurreko eta plazako bertsogintzari. Harituz taldeko motorretakoa den honek, bertan aurkitu du urrats hori emateko behar zuen konfiantza eta indarra. Nortasuna du bere bertsokerak, estilo propioa, eta horregatik nabarmendu da Gipuzkoako azkeneko txapelketan. Berriki Mallabiko sariketa irabazi du. Pedro Mari Otaño *Kattarro* herritar bertsolari bikainaren mireslea da, hizkera bizikoa, zeharkako umorea eta ziria ditu gustuko, eta bere ahots urratua eta berez sortzen zaizkion gorputz imintzioak lagun. Komunikatzaile aparta da ez Goikoa eta ez Behekoa ez den zizurkildar hau.

Aiurri

**IRUTXULOKO
HITZA**

lotariora



TXOKOLATEZKO TRUFAK

OSAGAIAK

- Txokolatea (kobertura bada, hobe. Aukeran zuria edo beltza) (250 g.)
 - Ura (4 koilarakada)
 - Gurina. (50 gr.)
 - Esnegaina (80 gr.)
 - Hauts azukrea (50 gr.)
- Brandi edo koñaka (3 koilarakada)
- Txokolate hautsa

Maria bainuan ontzi batean txokolatea urtzen jarriko dugu, lau ur koilarakada horietan. Urtzen denean gurina eta esnegaina gehituko dizkiogu. Horretarako gurina garaiz aterako dugu hozkailutik, biguna egon dadin. Maria bainuan segituan desegingo da, di-da batean aterako dugu, hortaz. Jarraian, azukrea eta koñaka gehituko dizkiogu, ondo nahastuko ditugu; azukrea hauts eran erabiltzen badugu hobe, izan ere, askoz errazago nahasten da. Ondoren nahasketa hozkailuan sartuko dugu. Hozten denean, masa gogor bat lortuko dugu. Goilara batekin masa apurrak atera eta eskuekin lan eginez, bolatxoak osatuko ditugu. Behin bolak osatuta txokolate hautsetik pasako ditugu eta dagoeneko gure txokolatezko trufak jateko prest izango dira.



JOSU LOPEZ-GAZPIO

Kimikan doktorea eta
zientzia dibulgatzailea

KIMIKA



TRANSGENIKOAK, TRANSZENDENTALAK?

Sarritan zientzia-komunitatea-
ren kontsentsua eta gizarte
orokorraren iritzia ez datoz
bat. Zenbaitetan, gainera, bi iritziak
guztiz kontrajarrita egon ohi dira.
Gaurkoan gai horietako bat izango
dut hizpide: genetikoki eraldatuta-
ko organismoen erabilpena, hain
zuzen ere. Organismo transgeniko-
ak, nahiago baduzue. Noizbait pen-
tsatu al duzu zergatik zauden elika-
gai transgenikoen aurka? Argudio
arrazoiturik emango al zenidake,
ene irakurle?

Ameriketako Estatu Batuetan
egindako zientzia-gaiei buruzko gal-
deketa baten arabera, elikagai
transgenikoen arloan dago zientzia-
larion eta publiko orokorraren arte-
ko iritzi-desberdintasunik handie-
na. Genetikoki eraldatutako elika-
gaiak jatea segurua den edo ez gal-
detuta, zientzialarien %88k baieztu-
koa erantzuten du, seguruak direla,
baina, publikoaren %37k bakarrik
esaten du baietz. Inkestaren galde-
ra guztietatik, horixe da bi taldeen
arteko desadostasun handiena sor-
tzen duen galdera (%51ko aldea).
Argi dago zientzialariok zerbait gaiz-
ki egin dugula ingeniartzat genetikoa
eskaintzen dituen abantailak eta
desabantailak azaltzean. Teknolo-
gia horrek etorkizunerako aukera
berriak eskaintzen dizkigu: batzuk
onak eta beste batzuk txarrak. Edo-
nola ere, oraindaino ez dago ikerke-
ta bakar bat ere organismo transge-
nikoak, transgeniko izateagatik,



osasunarentzat kaltegarriak direla
adierazten duenik. Erabilpen jakin
bakoitzaren arabera esan beharko
genuke gizartearentzat onuragarria
den edo ez, etikoa den edo ez.
Transgeniko mota guztien aurka
(nolabait, teknologia horren bera-
ren aurka) daudela baieztatzen du-
tenek ezer gutxi jakin ohi dute gene-
tikari buruz eta nekez izaten dira gai
argudio zientifikoak emateko.

Adibide batzuk emate aldera:
egun, diabetikoek injektatzen du-
ten insulina lortzeko bakterio
transgenikoak erabiltzen dira, in-
sulina ekoizteko giza-geneak dituz-
tenak. Horri esker saihestu dira txer-
ri jatorriko insulinarik eragiten zuen
errefusa. Beste kasu bat: Afrikan
eta Asia hegoaldean arrozak da die-
taren atal garrantzitsua (sarri asko-
tan, bakarra) eta horrek ez du A bita-
mina nahikoa ematen. Genetikoki
eraldatutako urre-koloreko arrozak
A bitamina gehiago ematen du eta
Hirugarren Munduko 100 milioi
umek pairatzen duten gabezia horri
irtenbidea ematen lagun dezake.
Golden rice delakoaren kasuak ez-
tabaida asko eragin ditu azken urte-
otan.

Gaixotasunak kutsatzeko gai ez
diren eltxo transgenikoena ere gai
interesgarria da, oso. Esate batera-
ko, une honetan Brasilen denge
arazo larria dago (2015ean %70 igo
da gaixotsun horrek eragindako hil-
dakoen kopurua). Oraingoz esperi-
mentu mugatuak izan badira ere,
dengea kutsatzeko gai ez diren el-
txo transgenikoak askatu dituzte
zenbait tokitan eta emaitza oso
arrakastatsuak lortu dituzte. Mala-
ria kutsatzeko gai ez diren eltxo
transgenikoak ere ikertzen ari dira,
eta urtean 400.000-750.000 hilda-
ko eragiten dituen gaixotasuna arin-
tzeko bidea izan daiteke.

Zalantza etikoak ez dira gutxi: gi-
zakiok egindako organismo trans-
genikoak ekosisteman sartzea zile-
gi al da? Ohiko argudioa izaten da
aurre ikuspen printzipioa aipatzea,
alegia, ondorio ezezagunak izan di-
tzakeen teknologia baten aurrean,
horren aurka egotea edo erabili
nahi ez izatea. Aurre ikuspen printzi-
pioak tranpa dauka, ordea. Alde ba-
tetik, zerbait guztiz segurua dela
zientifikoki frogatzea (ia) ezinezkoa
da (Russell-en teontziaren analo-
gia) eta, bestetik, aurre ikuspen
printzipioak ez ditu kontuan har-
tzen onura potentzialak. Beraz, be-
rriro diot, ingeniartzat genetikoa
teknologia bat da, tresna berriak es-
kaintzen dizkiguna. Kasuan-kasu
aztertu behar dira abantailak eta
arriskuak. Tira, ziur nago adibide in-
teresatuak jarri ditudala aurpegira-
tuko didazuela, baina, esan dudana
bezala, transgenikoen teknologiak
aplikazio onak eta txarrak ditu.
Onak direnak, zergatik ez?



Artzeren musika hitzaren bideratzaile

Hilabete batzuetako geldialdiaren ostean, bi urteko ibilbideari jarraipena emateko prest da 'Nola belztu behar zuria' ikuskizuna. Musika eta poesia errezitaldiak uztartzen dituzte Bide Ertzeaneko Imanol Ubeda, Joni Ubeda eta Karlo Aranzegui eta Metrokoadrokako Oier Guillan eta Asiera Sarasolak osatutako taldeak. Joxan Artzeren olerkiak dira kontzertuen oinarri. «Erreferente garrantzitsua» da Artze boskotearentzat.

IOSU ITURRIOZ DORRONSORO AMASA-VILLABONA

«Ilusioz» ekin diote bost kontzertuk osatuko duten pasarte berriari. «Ahots ezberdinen arteko jolasez, intentsitatez, erritmoez, umoreaz eta gorputzaren presentziaz osatutako emanaldiak» izango direla, eta «sakonera handiko gaiak» jorratuko dituztela aurreratu dute Imanol Ubedak eta Oier Guillanek.

2014ko maiatzean aurkeztu zenuten proiektua eta duela hilabete batzuk eten bat egitea erabaki zenuten. Bueltan zarete berriz ere.

Imanol Ubeda: 2014ko udaberrian eskaini genuen lehen aldiz *Nola belztu behar zuria* ikuskizuna. Jexux Artze kultur elkarteak urtero kultur ekitaldi modukoa antolatzen du Usurbilen eta ziklo horretarako osatu genuen propio. Geroztik do-

zena bat aldiz taularatu dugu eta, bidean, zuzeneko DVD bat plazaratu ere bai. Bitxia da. Emanaldi bat egiteko mandatua izan zen, baina programatzaile gehiagoren atentzioa deitu zuen eta, konturatu orduko, bi urteko ibilbidetxoa osatu dugu.

Orain bi urte, nondik sortu zen Bide Ertzeanen eta Metrokoadrokaren arteko fusioa?

I.U.: Garaikideak garelako esan daite-



Bide Ertzean eta Metrokoadrokako kideek taularatuko dute 'Nola belztu behar zuria' ikuskizuna. IBAI ARRIETA

ke. Metrokoadroka sormen laborategiaren martxa eza gutzen genuen. Euren zuzeneko batzuk ikusiak genituen, eta kolektiboko kideen obra poetikoa oso interesgarria egiten zitzaigun. Beste saltsa batzuetan topo egin izan dugu baina sekula ez genuen elkarrekin lan egin.

Nola belztu behar zuria ikuskizunari esker gurutzatu dira gure bideak. Eta Bide Ertzeaneko kideontzat luxu handia da horrelako bidaideak izatea. Joxan Artzeren mundu poetikoa taularatzeko lan handia egin dute Metrokoadrokako kideek eta, horri esker, zuzenekoek indar eta energia berezia dute.

Oier Guillan: Jose Luis Otamendiaren poemekin lehenengo diskoak plazaratu zituztenetik, Bide Ertzean taldearen ibilbide osoa jarraitu dugu. Bidai horretan guztian, talde tolosarrak euskal poesiarekiko lotura estua izan du. Bi taldeok beste-lako diziplina artistikoak lantzen ditugun arren, elkarbanatzen ditugun hainbat puntu ere baditugu. Horrenbestez, Bide Ertzean taldea poesia lan-tresna eta dramaturgia-kontzeptu gisa, Metrokoadrokaren antzezlan eta errezitaldien zutabe garrantzitsua izan da. Adiskidetasunaren mailan ez ezik, maila artistikoan oholza horrelako hiru artis-

tekin elkarbanatzea plazer handia da guretzat. Oholtzakide izateaz gain, Bide Ertzean zaleak garen heinean Artzeren poemekin osatu dituzten kantuen ikus-entzule bilakatzen gara emanaldiari.

Joxan Artzeren poemak dituzue oinarri musika eta poesia emanaldi horretan.

I.U.: Esan bezala, mandatu batekin hasi zen dena. 2014an, Usurbilgo Jexux Artze kultur elkartearekin jarri zen harremanetan. Urtero –udaberri partean– kulturaldi modukoa antolatu ohi dute. Joxan Artzeren poesia liburu berrieekin errezitaldi musikatu bat sortzeko propo-

“ ‘Nola belztu behar zuria’ ikuskizunari
esker gurutzatu dira gure bideak.
Eta Bide Ertzeaneko kideontzat luxu handia
da horrelako bidaideak izatea.»

IMANOL UBEDA

“ Oholtzakide izateaz gain, Bide
Ertzean zaleak garen heinean Artzeren
poemekin osatu dituzten kantuen ikus-
entzule bilakatzen gara emanaldira»

“ Artze zuzeneko emanaldien eta
errezitaldien arloan erreferente
garrantzitsua izan da guretzat»

OIER GUILLAN



samena egin ziguten Bide Ertzeaneko kideoi. Jakin bagenekien Metrokoadrokako lagunek ondo eza-gutzen zutela Artzeren poesia, eta harreman pertsonala ere bazutela usurbildar poetarekin. Gure gonbita onartu zuten Metrokoadrokakoe eta berehala hasi ginen ikuskizuna lantzen.

O.G.: Guk Mikelazulo kultur elkar-tearen hainbat proiekturen harira ezagutu genuen Artze; besteak beste, elkar-tearen hamargarren urteurrenean sortutako *No excuse* dokumentalean. Sarritan Hatsa elkartek urtero antolatu ohi duen hitzorduan bat egin dugu. Proposamena jaso genuenean, beraz, elkarrekin bizitako uneak gogoan, gure esker ona adierazteko modu bat izan zitekeela pentsatu genuen.

Idazle usurbildarraren idazteko moduak alde esperimentalak eta

lirikoa biltzen dituela esan izan duzue.

O.G.: Joxan Artzeren poesiak hainbat ertz ditu, bai gaien aldetik baita estetikaren aldetik ere. Ardatz ororen zipritzinak islatu nahi izan ditugu emanaldian, beti ere gure aho-tsetara egokituz. Oholtzara igotzen garenean emanaldia publikoarekiko zintzoa izatea ezinbestekoa da guretzat. Artzeren aurpegi lirikoa Bide Ertzean taldearen doinueta oso ondo egokitzen da, alde esperimentalak berriz, gure antzerkia egiteko eta ulertzeko modutik oso gertu sentitzen dugu

Eta hortik jotzen dituzue 60-70eko hamarkadetakoko folk amerikar kutsuko abestiak, ezta?

I.U.: Ikuskizunerako zazpi kantu berriz osatu ditugu. Zalentza handietako bat hori izan zen. Musikalki nondik jo. Joxan Artzeren poesiak hori

eskatzen zuela iruditu zitzaigun eta horrela ekin genion. Kutsu horretako abestiak osatzen hasi ginen eta behin tonua finkatu eta gero, errazagoa izan zen ondorengo lana.

Maitasunetik hasi eta heriotza arteko kontuez ariko zarete. Sakonera handiko gaiak dira.

O.G.: Sakonera handiko gaiak dau-de tarteetan, bai! Heriotza eta bizitzaren arteko harremana, esaterako, Artzeren olerkietan nabarmena da. Badira hartzaileak ezustean hartuko dituen hainbat gai. Adibidez, umorea. Sakontasun handiko gaiekin batera sarritan umoreak lekua du Artzeren zenbait lanetan. Uneoro sakontasuna errespetatuaz, intentsitate, umore eta ironia ukitua ematen saiatu gara antzezlanari.

Ohikoa den moduan, Artzeren testu eta gai guztiekin ez gatoz bat –gai batzuk gertukoagoak senti-



IBAI ARRIETA

tzen ditugu beste hainbat baino-. Hala eta guztiz ere, oreka topatzen saiatu gara. Tituluak berak ere beste gai bat iradokitzen du. Zergatik eta zertarako idatzi, zergatik eta zertarako sortu. Guztiok *Nola belztu behar zuria* tituluaren irakurketa horrekin bat egiten dugu.

Musikaren eta antzerkiaren uztarketa da emanaldia?

O.G.: Emanaldi honetan antzerkiak ez du lekurik. Kutsu bat antzeman daiteke ordea - ahots ezberdinen arteko jolasak, intentsitateak, erritmoak, umoreak, gorputzaren presentziak...-, gure errezitatze moduak antzerkigintzarekin harreman zuzena baitu. Artzeren poesiak asko du erritmotik, musikaltasunetik eta ahozkotasunetik. Emanaldian azken puntu horretan bat egiten dugu.

Artze zuzeneko emanaldien eta

errezitaldien arloan erreferente garantzitsua izan da guretzat, bera-rengandik makina bat aholku jasotakoak gara.

Zein ekarpen egiten dio talde bakoitzak -batetik, Bide Ertzean eta bestetik, Metrokoadroka kolektiboko bi kideak- ikuskizunari?

I.U.: Joxan Artzeren imaginario poetikoa islatzea. Hori izan da gure kezka. Kezka kolektiboa. Gai aldetik, adibidez, orekatua da saioa. Poetak lantzen dituen gai denak isla dute *Nola belztu behar zuria* ikuskizunean.

Bide Ertzeanek, aurrez esan bezala, zazpi kantu berri osatu ditu. Olerkien aukeraketan atentzio berezia ipini genuen. Gai oparotasuna islatu nahi genuelako. Eta kantuetan poemak agintzen du. Musika hitzaren bideratzailea baino ez da.

Honakoan, ahalik eta gutxien bihurtu ditugu poemak.

Lekunberrin izan da lehen ekitaldia baina beste lau dituzue aurretik.

I.U.: Urtea gogotsu hasiko dugu. Lekunberrikoa eta gero, Villabonakoa dator. Urtarrilaren 15ean, ostirala, Gurea Antzokian ariko gara. Eta, ondoren, Donostiako Ernest Lluch kultur etxean (urtarrilak 29), Orereta-Erretereriako Mikelazulon (otsailak 13) eta Larrabetzuko Hori Bai gaztetxean (otsailak 28) ariko gara.

Emanaldietara bertaratzeko denak zer jasoko du?

I.U.: Joxan Artzek bi liburu plazaratu zituen 2013an: *Heriotzaren ataria dugu bizitza* (Elkar) eta *Bizitzaren atea dukegu heriotza* (Elkar). Ikuskizun honen bitartez, liburu horietako idazlearen imaginario poetikoa laburbiltzen saiatu gara. Ikuslearen gustukoa izango den emanaldi osatu bat sortzen saiatu gara, eta lortu dugula uste dut. Ikusle oro etxera pozik joatea da gure helburua.

Otsailaren 28an eskainiko duzue azkeneko zuzeneko Larrabetzun. 'Nola belztu behar zuria'-ren azken emanaldia izango da?

I.U.: Ez dugu horrela planteatu. Baina egia da ikuskizun honekin, dagoeneko, ibilbide polita osatu dugula. DVD euskarrian grabatzeko aukera izan dugu, gainera. Lekukotza hori ere utziko du gure ahaleginak.

Ikusiko da. Beste programatzaile batzuen interesa piztu du eta ikusiko da bidea gehiago luzatzen den edo Larrabetzuko den azken ekitaldia. Hori azkena balitz ere, egingakoarekin pozarren geundeko.

OSTIRALA, ABENDUAK 15

ADUNA

ANTZERKIA

22:00. *Tartufo*, Molière. Lehen aldiz euskaraz. Itzultzailea: Juan Martin Elexpuru. Zuzendaria: Joxerra Fachado. Biga Taldea. Sarrera laguntza: 7 euro. Asvinenean.

AMASA-VILLABONA

MUSIKA ETA POESIA

EMANALDIA

22:30. *Nola belztu behar zuria*. Joxan Artzeren poemak Bide Ertzean eta Metrokoadrokaren eskutik. Sarrera: 6 euro. Gurea antzokian. *Irakurri elkarrizketa 22-25 orrietan*.

ELDUAIN

PROIEKZIOA

17:30. *Minions* pelikularen proiektzioa 2-13 urte artekoentzat. Sarrera: 0,50 euro. Larte kultur etxean.
19:30. *La Ola* pelikularen proiektzioa 14-18 urte artekoentzat. Sarrera: euro bat. Larte kultur etxean.

TOLOSA

KONTZERTUA

20:30. Café Quijano. *Orígenes: El Bolero*. Leidor antzokian.
19:00. Lore Amenabar Larrañaga-

ren akordeoi kontzertua. *Kulturtruk* erakusketaren barruan. Ura Iturraldek argazki saioa egin eta Lore Amenabarrek trukean kontzertua eskainiko du. Aranburu jauregian.
22:30. Grande Days eta Buffalo. Bonberenean.



23:30. Orbelako Gauak. Garikoitz Mendizabal & Aitor Furundarena. Orbela tabernan.
EGUBERRIETAKO KARRUSELA Urtarrilaren 17a bitartean. Alondegian. Euro bat, bidaia batek; 2 euro 3 bidaiek eta 5 euro 8 bidaiek.

IKASGELA AZTERKETA GARAIA

Unibertsitateko ikasleentzat ikasgela zabalik egongo da azterketa garaian. Astelehenetik ostiralera, urtarrilaren 29a bitartean. Gazte Topagunean, kultur etxeko 1. solairuan.

LARUNBATA, ABENDUAK 16

ABALTZISKETA

INAUGURAZIO FESTA

Zalbide sagardotegia berriro zabalik.
18:30. Herri kirolak.
19:30. Txotx irekiera.

20:30. Afaria.

22:30. Goierriko bertsolarien saioa.

23:00. Musika emanaldia Azkaiter pelox trio taldearekin.

BERASTEGI

IRTEERA

Urepele biltokiak antolatuta, Pirinioetara eskiatzera joateko irteera.

TOLOSA

JAIALDIA

17:00. *Salba ditzagun bizitzak*. Greziako krisi humanitarioaren aldeko kultur emanaldia. Iker Lauroba, Alurr, Udaberri, Oinkari, Egan eta Oihana Iguaran eta Amets Arzallus bertsolariak. Sarrera: 10 euro. Leidor antzokian.

MANIFESTAZIOA

17:00. Ezpala gaztetxearen aldeko manifestazioa, Triangulotik.

TXOTXONGILOAK

18:30. *Faboo* ikuskizuna. Escena creativa Madrilgo taldearen eskutik. Topic-en.

KONTZERTUA

22:30. BiHozkada eta Beñat Igerabide. *Orbanak* izeneko lehen lana aurkeztuko dute. Bonberenean.

ELKARTASUN AZOKA

Amarotzeko elkartasunezko azoka. Urtarrilaren 23a bitartean. Kultur etxean.

Mauka
berria



ERABILTZEKO EPEA: eskaintzak irauten duena

NARANJAS DE VERDAD

Navelina laranjak eta Clemenpons mandarinak

Osorik jateko eta zukua egiteko bikainak dira.

Laranjak aukeran:

- Zukua egiteko 10 kg kaxa bat: 15 €.
- Osorik jateko 10 kg kaxa bat: 16,50 €.

Kaxa mistoen prezioak:

- Zukua egiteko 5 kg laranja + 5 kg mandarina: 15 €.
- Osorik jateko 5 kg laranja + 5 kg mandarina: 16 €.
- ...

15,00€

eskaintza berezia

VALENTZIA

IGANDEA, ABENDUAK 17

AMASA-VILLABONA ANTZERKIA

Kontu kantari. La enana naranja.
Gurea antzokian.

BERASTEGI

SAN ANTON EGUNA

17:00. Meza San Anton ermitan.
Ondoren. Animalien bedeinkapena eta merienda.

TOLOSA

MENDI IRTEERA

Oargi Mendi elkartearen irteera.
Arantzako zirkora irteera (Nafarroa).
7-8 ordu inguruko ibilaldia izango da eta 1.400 m.-ko gora-behera izango du.

SKATE TXAPELKETA

10:00-12:30. Izen ematea eta beroketa.
13:00-17:00. Txapelketa.
17:30. Sari banaketa.

ASTELEHENA, ABENDUAK 18

ANOETA

HITZALDIA

19:00. Kexarik gabeko mundua hitzaldia, Juanjo Lertxundik eskaini-

ERAKUSKETAK

Jolasa eta txotxongiloak.

Tolosa, Topic.
Martxoaren 6ra arte.

Erretratuak. Amarotzeko auzotarren oroitzapenak.
Urtarrilaren 20a arte.

Kulturtruk. Artistaren eta artelana eskuratzen duen pertsonaren artean, baina dirurik erabili gabeko trukea.
Urtarrilaren 28a arte.
Aranburu jauregian.

ta. Udaletxean. «Gauzak ikusteko modua alda ezazu eta gauzak itxuraz aldatuko dira».

IBARRA

UZTURPE IKASTOLAREN KULTUR ASTEA

17:30. Mugimenduaren garrantzia haurraren garapenean hitzaldia
Maialen Mujika, kinesiologian adituaren eskutik. 0-6 urteko umeen gurasoei zuzendua. Kultur etxean.

TOLOSA

ODOL EMAILEAK

18:00-20:30. Gipuzkoako odol emaileen hitzordua, kultur etxean.

ZINEMA



Dheepan

Urtarrilak 16,
larunbata (19:30).
Tolosa, Leidor.

Star Wars

Urtarrilak 16,
larunbata (19:30 eta 22:00);
urtarrilak 17,
igandea (19:30) eta urtarrilak 18,
astelehena (21:00). Amasa-Villabona, Gurea.

Deuda de Honor

Urtarrilak 16,
larunbata (22:30) eta urtarrilak 17,
igandea (19:30 eta 22:00). Tolosa, Leidor.

Carlitos y Snoopy

Urtarrilak 17,
igandea (17:00).
Tolosa, Leidor.



ileapaindegia? tailerra? optika? jatetxea? albaitaria?...
Topatu behar duzuna!
Eskualdeko zerbitzuak
www.ataria.info

TOLOSAKO UDALA
IRAGARKIA
Tolosako Udalak 12 TRAFIKO LAGUNTZAILE hautatu behar ditu Udaltzaingorako, Inauterietan jarduteko (otsailaren 7an, igandea, 8an, astelehena eta 9an, asteartea). Oinarriak eta eskaera egiteko orriak, Tolosako Udaletxeko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zaharrako 6A zkan, edota udaleko web orrian (www.tolosa.eus). Eskaerak aurkezteko epea 2016ko urtarrilaren 26an, 13:00etan, bukatzen da.
Tolosa, 2016ko urtarrilaren 11.
ALKATEA
Olatz Peon Ormazabal

Sua ari du



Maddi Sarasola Eizmendi
Betaurreko berdeekin

Orain artean, suteak Galizian eta Penintsula behealdean izaten ziren. Piromano halakoak! Guri ez zaizkigu bazterrak erretzen, nola ba!

Ba bai, hemen ere erretzen dira eta ez du balio euririk ez duela egin esan eta horretan geratzeak. Katearen katebegi bat besterik ez da izan. Hobe esanda, kate hausturaren begia.

Jada ez dugu ikatzik behar. Jada ez dugu sutarako egurrik behar. Jada ez dugu zuraren beharrik (Txiletik itsasontziz ekartzea merkea goa da eta!).

Gure aurrekoek insignis pinuz bete zituzten bazterrak eta gu hemen, zer egin ez dakigula. Herentzian jaso ditugu sailak, baina bizi ziren artean ahaztu egin zitzaigun galdetzea sail horiek non arraio dauden. Eta non dauden jakinda ere, hasperen egiten dugu. Orain ez dute balio nahikorik eta gainera, gaitzak jo dizkigu.

Geratzen zaizkigun pagadiak Natur Parkeetan babestu ditugu. Baina, kasu honetan ere, nola lepatzen ziren galdetzea ahaztu zitzaigun. Europatik babeserako laguntzak bidaltzen dizkiguten arren, diru horrekin zer egin asmatu ezinik gabiltza.

Kalekumeok maite dugu basoan, nahiz zelaietan pasioan ibiltzea. Baina, gorroto dugu sasi artean trabatzea. Bada, larrean zebiltzan animalia guztiak ukuilu handietan sartu ditugu (zenbat eta handiagoak, hobe!). Eta sasiak hartu gaitu. Eskerrak basurdeek eta orkatzek behintzat, euren lekua aurkitu duten!

Urte amaierako suteen txinparta auskalo nondik datorren (interesak, axolagaberen bat...). Baina, su-gaia guk jarri dugu. Orain, bi aukera ikusten ditut: gizakiak, berriz, katebegiak jartzea, edo mendiak bere kasa utzi, eta oreka nola aurkitzen duen ikustea.



Nafarroa etorb. 13 behea • **TOLOSA**
670 41 79 22 • Tel./Faxe: 943 65 0313



Zatoz **ataria**ren
egoitzara zure
mahai egutegiaren bila!

San Esteban 20 • Tolosa
943 65 56 95

tolosaldeko
ataria
www.ataria.info • 107.6 fm • 105.0 fm



Joseba Antxustegietxarte

Zer izan nahiko zenuke oraintxe?



Itxaropena Urkiola
Irakaslea

Umeak, adinez txikia denak, badu bera-riazko freskotasuna, naturaltasuna, eta baita ametsetan esna aritzeko trebezia ere.

Urtearen hasierarekin jarri gintuzten Poxpolo eta Konpainiak, amesten, gezurra egiarekin mozorrotzen, aire garbia arnas-ten. Urtearen hasiera izateko, ezin modu aproposagoan hasi ume izaten. Han, Leidorren bildu ginen guztiak, ume bihurtu gi-nen. Eta emanaldiaren ondorengo Errege-en kabalgatak ere magia bete zuen hau-rraren bihotza. Erraldoien dantzak miresmena zabaldu zuen. Ametsetan,... gozo-gozo, begiak zabal-zabal eta bela-

rriak erne-erne, ipuin baten hasiera balitz bezala zeuden haurrak, eta baita hauen ondokoak ere.

Hasiak dira danborrak astintzen, inau-terietarako dantzak eta jaiak antolatzen, magia kutxatik ateratzen, koloreak, ame-tsak, gezurra egiaz estaltzen.

Haurra non, imajinazioa bertan, fresku-ra, aire garbia.

Haurrari galdetu diogu zer izan nahi duen helduagoa izatean. Hor ere ametse-tan ari da haurra, eta guk haurra izan nahi-ko genukeela pentsatu dugu, gezurretan ez, egiatan baizik.

Oraintxe zer izan nahiko nukeen galde-tuko balidate, argi izango nuke. Momentu batez baino ez bada ere; haurra.



Iker Ibarluzea
Eguraldi mutila

Ostiralean

Guarkoan negu giroa iritsiko zaigu aspaldiko partez. Goizean goizetik euri zaparradak izango ditugu, ugarietak goizean botako ditu, arratsaldean tartekatuagoak izango dira baina hala ere, euritan jarraituko du. Temperatura dezente jaitsiko da, ez da 7-8 gradutik pasako, hotz egingo du eta elur maila nahiko beheran ikusiko dugu (600-800 m.). Arratsaldeko lehen orduan 500 metrora jaitsiko da.

Larunbatean

Atzoko eguraldiak jarraipena izango du goizean, haizea zakar ibiliko da, hotz egingo du (6-7 gradu). Euri zaparradak botako ditu, goiz partean batez ere, arratsaldean pixkanaka atertzen hasiko da. Goizean elur maila 500-600 metroan kokatuko da. Eguerditik aurrera mailak gora egingo du eta 1.000 metrora igoz.

Igandean

Eguraldi lasaiagoa izango dugu, goizean eta arratsalde hasiera arte ostarte zabal batzuk izango ditugu. Haizeak ipar-ekialdetik joko du, giro lasaia izango dugu. Tenperaturak nahiko hotza izaten jarraituko du, 6-8 gradu. Arratsalde erditik aurrera berriro ere hodeiak sartzen hasiko dira, mende-baldetik. Baliteke azken orduetan euri zaparradaren bat botatzea.

Astehenean

Fronte bat sartuko da berriro ere, ipar-mendebaldeko haizea lagun. Berriz ere, euri zaparrada batzuk botako ditu. Tenperaturak zertxobait gora egingo du, 11-12 gradutara bitarte. Goizean eta eguerdira bitarte zaparradak izango dira, arratsaldean atertuko du.

Ostirala
15



Igandea
17



Larunbata
16



Astehena
18



farmaziak

GAUR

Urtarrilak 15, ostirala

Tolosa

Egunekoa eta gauekoa:

Morant, R. Zabalarreta Lorategiak, 1.

Telefonoa: 943 67 38 49.

Urtarrilak 16, larunbata

Tolosa

Egunekoa:

Olarreaga, M.

Martin J. Iraola etorbidea, 10.

Telefonoa: 943 67 24 38.

Gauekoa:

Morant, R. Zabalarreta Lorategiak, 1.

Telefonoa: 943 67 38 49.

Urtarrilak 17, igandea

Tolosa

Egunekoa:

Bengoetxea, E.

Kale Nagusia, 7. Tel.: 943 67 06 48.

Gauekoa:

Morant, R. Zabalarreta Lorategiak, 1.

Telefonoa: 943 67 38 49.

Urtarrilak 18, astelehena

Ibarra

Egunekoa:

Lejeune Maset, L.

Euskal Herria kalea, 46.

Telefonoa: 943 67 32 74.

Tolosa

Gauekoa:

Morant, R. Zabalarreta Lorategiak, 1.

Telefonoa: 943 67 38 49.

Iragarki laburrak

PISUKIDE BILA

Tolosako erdigunean,

gela alokagai: Tolosan, pisukide neska baten bila nabil. Herriaren erdigunean dagoen etxebizitza handia da; hiru logela, bi komun, sala ederra eta espazio handia duen sukaldea ditu. Gelaren prezioa 200 euroko da, hileko. Bestelako gastuak aparte lirateke. Kontaktua: 680 25 80 40.

Zure iragarki laburra paperean edota interneten argitaratzeko: Deitu 943 65 56 telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.info helbidera edo pasa ATARIA-ko egoitza. San Esteban 20, 20400 Tolosa.



ataria Irratia 107.6 fm / 105.0 fm

OSTIRALA

09:00. **Pasahitza** magazina:

Eguraldia, solasaldi politikoa (Ahal dugu, PP eta PSEE), eguraldia, Angel Mari Peñagarikano *Kale kantotik*, Tolosaldea Garatzen, Quark zientzia saioa, Tolosako azokari eskaintako tartea, eguneko errezeta eta lehiaketaren atala. Eta saioa amaitzeko, Antton Telleriak proposatutako eguneko abestia.

11:00. **Hamaiketakoa.**

Gure eskualdeari asteroko begirada. Gaurkoan, Villabona-Aiztondo eta Anoetaidea.

12:00. **Entzuteko jaioak** musika saioa.

16:00. **Zezrabidea**

18:00. Goizeko saioak utzitako onena.

LARUNBATA

10:00. Asteak utzitako onena.

Ondoren. Trikitixa.

16:00. **Entzuteko jaioak** musika saioa.

18:00. **Entzuteko jaioak** musika saioa.

IGANDEA

10:00. Asteak utzitako onena.

16:00. **Entzuteko jaioak**

18:00. **Entzuteko jaioak**



Aiztondorako frekuentzia berria:
105.0 fm





PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK
EGUNEROKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA



**INAUTERIETAN
MENU BEREZIA**
Erreserba egiteko:
943 67 42 77

Urrope z/g 20491 • **LEABURU** • Tel.: 943 67 42 77 • ostatua@ostatua.com

atolaria
www.ataria.info • 107.6 fm • 105.0 fm

atarikide@ataria.info

943 65 56 95

Egin zaitez
atarikide
martxoaren 31 baino lehen,
eta jaso
Mahala baserriko produktuez
osatutako saski ederra
opari!

www.mahalanaturala.com



B.P. 5.775/15.11.6.

2. betaurrekoak
DOAN
GAMA ALTUKO
mó progresiboak
erosita
197 €

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR
ERRETERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • **TOLOSA**

Gure betaurreko
guztiak **bilduma**
berrietakoak dira



MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

bertso jaialdia



Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Unai Mendizabal 'Mendi' **Gai jartzailea:** Amaia Agirre

Urtarrilak 23, larunbata
18:00^{etan}
Tolosako Leidor antzokian

Sarrerak 10 €

• Tolosa: Raku, Orbela, Kantabriko • Alegia: Route 33
• Villabona: Amasa kafetegia • Zizurkil: Iriarte • Ibarra: Zubiaurre

Antolatzailea: